

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hasi dituzte Anue, Odieta eta Ultzamako ur-horniduraren sare berrirako obrak

Barcina Lehendakariak instalazioaren lehen harria jarri du astelehen honetan. 6 milioi euro ingurukoa izango da aurrekontua.

Lunes, 20 de enero de 2014

Ultzanueta Zerbitzu Mankomunitateko (Anue, Lantz, Odieta eta Ultzama herriek osatzen dute) uren hornidura-sare berrirako obrak ofizialki hasi dira astelehen honetan Olaguen (Anue), Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak instalazioko lehen harria jarri ostean.

Obrak urtebeteko epean gauzatuko dira eta 5.969.481,68 euroko aurrekontua dute. Zenbateko horretatik, Nafarroako Gobernuak, Toki Inbertsioen Planaren bidez, 4.465.935,72 euro eman ditu, hau da, diru-laguntzen bidez eman daitekeen aurrekontuaren % 90 (BEZik gabe). Azpiegitura eraikitzean 1994 eta 2007 urteen artean inguruan gauzatutako jardueretan egindako bideak eta hoditeriak aprobetxatuko dituzte.

Yolanda Barcina Lehendakariak azpimarratu du Foru Gobernuak Ultzanuetako uren sare berrirako inbertsio osoa 2.000 euro ingurukoa dela biztanleko, eta obren helburua nafar guztiek ura eskuratzeko aukera izatea, kopuruari eta kalitateari dagokionez, "baldintza berberetan", bizitokia edozein dela ere.

Proiektuaren proposamena inguruko hainbat iturburu bateratuta eta aldi berean erabiltzea da, uraren ustiaketa zentzuzkoagoa eta orekatuagoa izan dadin eta, hala, agorraldian herrietako batzuk jasan izan duten defizita saihesteko. Asmoa inguruko baliabide hidriko garrantzitsuenak aprobetxatzea da, gainerakoa ubide naturaletatik ibil dadin,



Barcina Lehendakaria Ultzanuetako uren sare berrirako lehen harria lurrez estaltzen.



Barcina Lehendakariaren mintzaldia Ultzanuetako uren sare berrirako lehen harria jartzeko ekitaldian.

izan ere, kontuan izan behar da ingurumenaren aldetik babes berezia duen eremua dela.

Ekitaldian izan dira José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilaria, Francisco Pérez Toki Administraziooko zuzendari nagusia eta Anue (Raúl Pascal), Odieta (Alberto Urdaniz) eta Ultzamako (Francisco Tornaria) alkateak, udaletako beste ordezkari batzuen artean.

Bi fase

Bi fase izango ditu proiektuak. Lehen fasean, aurtengo urtean egingo dena, uraren hornidura hobetuko da, kopuruari eta kalitateari dagokienez, Anue, Odieta eta Ultzama udalerrietako hogeita hiru herritan, eta bigarren faserako utziko dira udalerrri horietako beste sei herriak eta Lantz.

Zehazki, lehen fasean, Anueko Olague eta Etulain; Odietako Anotzibar, Ziaurritz, Gendulain, Erripa, Gaskue, Gelbentzu eta Latasa; eta Ultzamako Alkotz-Lozen, Iraizotz, Iraizotz urbanizazioa, Zenotz, Gerendiain, Lizaso, Auza, Larraintzar, Suarbe, Arraitz, Orkin, Arraizko Bentak, Ilarregi eta Eltso.

Bigarren fasean, Anueko Aritzu eta Egozkue; Odietako Ostitz; Ultzamako Urritzola-Galain, Gorrontz-Olano eta Eltzaburu, eta Lantz herrietara hedatuko da zerbitzua.

Iturburuen bidezko hornidura

Proposatutako irtenbideak hainbat iturburu erabiltzen ditu aldi berean ura eskuratzeko baliabide gisa. Hasieran, Biurrun, Usillaga, Ataketa, Ezpeleta eta Lantz-Burlatako sorburuekin lotuko da; hala ere, baliteke, gerora, Biurreta eta Lantz-Atarrabiako iturburuetatik ere ura hartzea.


Eskuratzen den ura 500 m³-ko ur-tanga batean biltegitratuko da eta, ponpaketa-estazio baten bidez, Arraitzen (Ultzama) dagoen sistemaren hasieraraino eramango da. Bertan beste tanga bat, edukiera berekoa, eta edateko ura tratatzeko instalazio bat egongo dira, segundoko 32 litro trata ditzakeena; etorkizunean instalazioa handi daiteke, segundoko 48 litro tratatzeko gaitasuna izan dezan.

Tratatutako ura 2.500 m³-ko edukiera duen beste tanga batean gordeko da. Bertatik herri bakoitzeko tanga erregulatzaileretara banatuko da ura, instalazioak izango dituen 51 kilometroei esker. Horietatik 32,5 kilometro proiektu honen bidez eraikiko dira. Gainerako 18,5 kilometroak 1994 eta 2007 artean egindako esku-hartzeetan eraikitakoak dira.

Obrak LKS enpresak zuzendu eta Construcciones Mariezcurrena, Arian eta Hidroambiente enpresek burutuko dituzte, eta 350 m³-ko (Ultzamako Suarbe-Eltzaburu eta Ilarregirako), 250 m³-ko (Odietako Erripa eta Gendulainerako) eta 125 m³-ko (Ultzamako Zenotzerako) tanga erregulatzailerekin amaituko dira.

Bigarren argazkiaren oina (aurrean, ezkerretik eskuinean): Santiago Sánchez, LKS enpresakoa; José Javier Esparza; Francisco Tornaria; Raúl Pascal; Alberto Urdaniz; Francisco Pérez, Yolanda Barcina, bertaratutakoei hitz egiten.

Galería de fotos



Barcina Lehendakaria kutxan sartuko den agiria sinatzen.